

"Aitzol" duela 50 urte afusilatu zuten

Hemen, 1986-10-17: 8.

Euskalerrian frankistak fusilatu zituzten apaizak hamasei izan ziren, eta denak dira aipagarri eta agurgarri: Santiago Lucua Aramendi, Gerbasio Albisu Bidaur, Martin Lekuona Echabeguren, Jose Adarraga Larburu, Jose Ariztimuño Olaso, Jose Sagarna eta Uriarte, Alejandro Mendicute Liceaga, Jose Otano Mikeliz, Joakin Arin Oyarzabal, Leonardo Guridi Arrazola, Jose Marquiegui Olazabal, Jose Ignacio Peñagaricano Solozabal, Celestino Onaindia Zuloaga, Jorge Iturricastillo Aranzabal, Antonio Bambin eta Leon Urteaga Elezburu "Aita Román".

Hemen Jose Ariztimuño "Aitzol" dakargu, gure gaurko gaia delako; honen zergatiaz laster jabetuko da apaiz hau dagoeneko ezagutzen ez duen irakurlea.

JOSE ARIZTIMUÑO eta *OLASO*. Tolosan jaio zen 1896an, goiz sentitu zuen apezgorako deia, eta ez zen Gasteizera bidalia izan, Comillas-eko Universidad Pontificiaria baizik, josulagunen eskuetan eta zuzenki erromaren mende zegoen goi-ikastegira. Han zegoen dagoeneko "Orixe", josulagun izateko bidean "maestrillo" edo maisu bezala; baita ere filosofia mailan zeuden beste bi euskaltzale: Martin Oyarzabal eta Nemesio Larrea, eta gaztexogoak ziren Nemesio Etxaniz, Landaburu (Javier diputatu araberraren anaia). Hauen kezka larrienetako bat zera zen, herriko apaiza izan nahi zuten zere gero euskara beharrezkoa sentitzen zuten, eta Comillas-en ez zen euskal klaserik ematen. Hala azpitik zebilen suari kea ikusi zioten bezain laster erabaki zuten agintarietara eskarmentu txiki bat egitea, eta nor botako, eta Ariztimuño: "expedientado". Hemendik Gasteizera, baina ez barneikasle bezala, "externo" gisara baizik.

Hau honelaxe da. Hala ere, azkarra izan, eta langilea oso, eta apaiz egiten duten bezain laister 1922an, *Secretario Misional Diocesano* erakunde berriaren buru egiten dute; laster erakusten du berriz ere bere barruko zuen euskalzaletasuna, eta *Gure Misiolariak* aldizkaria agertzen du. Hemen ere sortzen dira ekaitzak, eta erasoak Joxemigil Barandiaran eta Manuel Lekuona jaunak zuzenki ikutu ez bazituen ere, gehiegi izango! eta "Aitzol" izan zen berriz ere sakrifkatua: Gipuzkoako herri txiki eta bastarreratuenetako batetara. Garin-era bidali zuten. "Egintzak euskaraz ahuntzekin", esan nahi izan baliote bezala. Jasan izan ditu euskarak honelako milaka eta milaka eraso.

Isil-isilik joan zen mendira dagoeneko bularretako gaitzak jota zegoen apaiz gaztea: "ni naiz artzai ona", izan zen lehendabizi egin zuen sermoiaren gaia. Halaxe jokatu ere, eta uda beroko gau sargori batean bserri bakarti bateko amona hiltzen zegoela eta dei larri bat jaso eta han dihoa mendiz gora presaka: itzultzerakoan ez zen ongi sentitu, behar bada amona hilik aurkitu zuelako ere bai, baina nolana etxera orduko ahokada odol bota zuen bidean. Oso makal egon zen. Pizkortzen hasi zenerako. Zacarias Martinez obispoa aldatu egin zuten, eta don Mateo Mugika gotzaiak Donostiara destinatu zuen, osorik senda zedin.

Euskalerria bihotzean zuen intelektual gaztea poesiaz arduratzen hasi zen, euskal poesiaz; ikusi bait zuen European 1914-18ko lehen mundu-gerran libratu ziren herriak poeta haundiez baliatu zirela beren hizkuntzak berpizteko, eta, hala, "Euskaltzaleak" erakundea sortu, urteroko Olerki Jaiak eratu eta irabazleen *Eusko Olerkiak* argitaratzen hasten da: 1. "Lauaxeta", Errenterian irabazle (1930); 2. "Lizardi", Tolosan (1931); 3. Joakin de Bedoña "Loramendi", Hernanin (1932); 4. Patxi Etxeberria Andoaindarra, Urretxun (1933); 5. Jokin Zaitegi Zarautzen (1934); 6. Luis de Jauregik (Jautarkol), Arrasaten (1935); 7. Iñaki Otamendi, Lekeition (1936).

"Orixe" k ez zuen bigarren sari bat besterik lortu, eta Aitzol-en errua zela esaten zuen; ez zen egia hau ez bait zen sariemaileen mahaiko izaten. Bestalde, Aitzol zen "Orixe" gehien bultzatzen zuena *Euskaldunak* amaitzeko, berak argitaratu nahi zuen eta, "paper biblian, larruz jantzia".

Baina garai honetan beste zerbaite ere gertatzen da: don Manuel Lekuonagandik ikasten du Aitzolek gure herriaren berpiztea batez ere bertsolaritza finkatzen zela, herriak hor edaten bait zuen gehien eta gustoen. Ikasi, eta gauzak martxan jarri, bat izaten zen "Aitzol" en izaeran, eta T. Hernandorena eta beste batzuen laguntzarekin, antolatzen ditu 1935 eta 1936go "Bertsolari guduak", lehen bertsolari txapelketa formalak: "Basarri" eta "Txirrita" izan ziren irabazleak.

Honez gain: *Yakintza* aldizkaria sortu zuen, gure kulturaren eragin haundikoa; euskal liburuei bultza zien, askotan hitzaurreak idatziz, Aitzol berak idatzi zituen *Lucha de idiomas en Euzkadi y Europa. La muerte del euskara*, eta bere libururik ezagunena: *La democracia en Euzkadi*. Honetaz kanpo, kazetari erne eta jakintsu izan zen, garai hartako bi egunkari abertzaleetan idatzi zuen: *Euzkadi*, Bilbon eta el *Dia*, Donostian; gutxienez 350 artikulua sakon idatzi zituen Errepublikara garaieko bost urteetan.

Beste lan asko: hitzaldiak (sozial arazoa), euskal kulturaren bultzatzailearen eginkizunak denak bereak ziren.

Hil ere egin zuten Euskalerraren alde jokatu zuelako: Baionatik Bilbora zihoan "Galerna" euskal-korreoa untzia abiatu zen 1936ko urriaren 15ean (Gipuzkoa hartua eta lehen Eusko Jaurlaritza sortu berri-berria, 7an); Pasaiaren aurrean untzi frankistek harrapatu. Donostiako Ondarreta espetxean sartu eta ongi astindu ondoren, juiziorik gabe, gauez, atara, atean "libre" zegoela paperak firma arazi, kamioi batean Ernaniko kanposantura eraman eta lur santutik kanpora geratzen zen sasitarrean fusilatu eta beste apaiz batzuek zulo berera bota zuten.

Txakur bat lez; heriotz hauen daturik ez da agertzen errejistroetan, ez zibiletan eta ezta Elizakoetan ere.

Hala, bi aldiz hilak geratu ziren, gorputzean eta ariman, "Aitzol" eta beste hamabost apaiz euskaldunak; euskaldunak izaten jakin zutelako, beste pekaturik gabe; paperak, zertifikatuak, sobera dituzte oraindik bizirik dirauten munduan eta Euskalerraren memorian.